

Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

IRAGARPENA, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria, «Federación de Asociaciones Pesqueras de Euskadi» elkartearen desegiteko agiriak gorde direla jakinarazten duena. 18442

GETXOKO UDALA

IRAGARPENA, Planeamenduko Arau Subsidiarioetan aldaketa zehatz bat sartzeari lehenengo onarpena emateari buruzkoa. 18443

ANDOAINGO UDALA

IRAGARPENA, Andoaingo Udalen Planeamenduko Arau Subsidiarioetako elementu batzuen 3. aldaketa ordenatzeko eta gartzeko irizpide eta irtenbide orokorreari buruzkoa. 20.1 - 20.2 eta 21 sektoreetan egingo lirateke aldaketak. 18443

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

Zk-5893

AGINDUA, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena. Agindu honen bidez urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen da, hau da, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolatetari buruzkoa.

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretuaren bidez haur eta gazte taldeen egonaldietarako prestatutako aterpetxe edo instalakuntzen errekonozimendua arautu zen. Horren helburua zen, hain zuzen ere, haur eta gazte talde antolatuei ostatu ematen dieten egoitza finkoetan errespetatu beharreko gutxienezko segurtasun eta garbitasun betebeharrak bermatzea, kontutan hartuta egonaldi horiek urteko sasoi jakinen batean nahiz etenik gabe egitekoak direla, gutxienez gau baterako eta, gehienez jota, hilabete jarrai baterako, eskolako irakas-kuntzaren osagarri edo lagungarri gisa eta aisialdian burututako kultura zein hezkuntza ihardueri loturik.

Horren ildotik, eta haur eta gazte taldeek etxetik kanpoko egonaldietarako erabiltzen dituzten lojamendu-etxeak bizigarritasun egoera onean daudela eta bertan bete beharreko segurtasun neurriak konplitzen

Otros Anuncios Oficiales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la Disolución de la «Federación de Asociaciones Pesqueras de Euskadi». 18442

AYUNTAMIENTO DE GETXO

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento. 18443

AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

ANUNCIO sobre los criterios y soluciones generales de la ordenación y desarrollo de la 3.ª Modificación de Elementos de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico Municipal de Andoain en los sectores 20.1 - 20.2 y 21. 18443

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Nº-5893

ORDEN de 12 de noviembre de 1997, de la Consejera de Cultura, por la que se desarrolla el Decreto 406/1994, de 18 de octubre, sobre ordenación de albergues e instalaciones destinadas a la estancia y alojamiento de grupos infantiles y juveniles.

Mediante el Decreto 406/1994, de 18 de octubre, se ha regulado el reconocimiento oficial de albergues e instalaciones destinadas a la estancia y alojamiento de grupos infantiles y juveniles con el fin de garantizar la salvaguarda de unos requisitos mínimos de seguridad e higiene para las personas usuarias de aquellas dependencias fijas que estacional o permanentemente se destinan a alojamiento durante al menos una noche y nunca más de un mes consecutivo a colectivos organizados de niños y niñas o de jóvenes en el marco de sus actividades de educación en el tiempo libre, culturales, de ocio, de apoyo o de complemento a la enseñanza escolar.

Para garantizar una adecuada y correcta habitabilidad, así como la salvaguarda de las oportunas condiciones de seguridad en los referidos alojamientos extradomiciliarios que los grupos infantiles y juveniles utilizan

direla bermatu nahian, Agindu honen bitartez instalakuntzek errekonozimendu ofiziala lortu ahal izateko konplitu beharreko betebeharren nondik norakoak arautzen dira, gai honen inguruko legediaren arabera dagokien instantzien eskutik lortu beharreko baimenez gain bete beharrekoak alegia. Bestalde, honako alderdi hauek ere finkatzen dira: instalazio hauen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, ofizialki onartutako instalakuntzen erregistro bateratua osatzeko modua eta instalazio guztientzako berdina izango den bereizgarriaren diseinua finkatzea.

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretu horren Azken Xedapenetatik Lehenak dekretu hori garatzeko hartu beharreko erabakiak hartzeko ahalmena ematen dio Kultura sailburuari. Bestalde, 4. atalean, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioari honako zeregin hauek ematen dizkio Kultura Sailaren bitartez bete ditzan: instalazioak onartzeko eta martxan jartzeko bete beharreko baldintzak arautzea, errolda bateratua osatzea eta Euskal Autonomi Elkarre osoan onartutako instalakuntza guztietarako bereizgarri bakar bat sortzea.

Horrenbestez, honako hau

XEDATU DUT:

1. atala.– Aterpetxe eta instalakuntzen kokapena eta bertara iristeko modua.

1.1.– Instalazioak ezingo dira egon kutsadura edo gaixotasunik ekar ditzaketen lekuetatik hurbil, ez eta erabiltzaileen segurtasuna nola edo hala kolokan jar dezaketen toki eta elementuetatik ere.

1.2.– Instalazioetara iristeko bideak nahiko zabala izan beharko du eta ongi zaindua egon beharko.

1.3.– Errepidetik hurbil edo bideren baten ondoan dauden instalakuntzetan, istripurik ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartuko dira.

1.4.– Instalazio guztiek larrialdietarako plan berezi bat izan behar dute.

1.5.– Instalazioan telefonorik ez baldin badago, larrialdi egoeretan komunikatzeko bideren bat erabiltzeko modurik izango dela bermatu beharko da.

2. atala.– Instalazio elektrikoak, gas instalazioak eta berogailu sistema.

Instalazio elektrikoak eta gasarenak indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte, eta baita berogailu sistemak ere.

3. atala.– Suteei aurrea hartzeko eta aurre egiteko sistema.

3.1.– Instalazio guztiek suteei aurrea hartzeko eta aurre egiteko babes neurriei buruz indarrean dagoen legedia bete beharko dute.

en la realización de sus actividades, mediante la presente Orden se regulan los requisitos mínimos que deberán cumplir las instalaciones para su reconocimiento oficial y funcionamiento, sin perjuicio de las autorizaciones que, según la legislación sectorial al respecto, habrán de ser otorgadas por otras instancias competentes. Igualmente se determinan los derechos y obligaciones de las personas usuarias, el proceso para la llevanza del Registro unificado de instalaciones oficialmente reconocidas y el diseño del distintivo único.

La Disposición Final Primera del citado Decreto 406/1994, de 18 de octubre, faculta al Consejero de Cultura para dictar las disposiciones necesarias en orden a su desarrollo. Por otro lado, en su artículo 4 se asigna a la Administración de la Comunidad Autónoma, a través del Departamento de Cultura, la regulación de los requisitos para el reconocimiento y funcionamiento de las instalaciones, la llevanza de un registro unificado y el establecimiento del distintivo único de las instalaciones reconocidas para todo el ámbito de la Comunidad Autónoma.

En virtud de lo cual,

DISPONGO:

Artículo 1.– Emplazamiento y acceso.

1.1.– Las instalaciones no podrán estar ubicadas junto a focos susceptibles de dar lugar a contaminaciones o enfermedades ni junto a lugares ni elementos que entrañen cualquier peligro para la integridad física de las personas usuarias.

1.2.– Las instalaciones deberán disponer de una vía de acceso que tenga una amplitud suficiente y un buen nivel de mantenimiento.

1.3.– Las instalaciones situadas cerca de una vía de comunicación deberán disponer de las medidas de protección necesarias para evitar accidentes.

1.4.– Cada instalación deberá disponer de un plan de emergencia específico.

1.5.– Cuando la instalación no disponga de servicio telefónico propio, debe garantizarse la posibilidad de utilización de algún medio de comunicación para casos de emergencia.

Artículo 2.– Instalaciones eléctricas, de gas y sistema de calefacción.

Las instalaciones eléctrica y de gas deberán cumplir las condiciones exigidas por la normativa vigente, al igual que el sistema de calefacción idóneo del que se disponga.

Artículo 3.– Sistema de prevención de incendios.

3.1.– Toda instalación deberá cumplir la normativa vigente relativa a las condiciones de protección contra incendios del edificio.

3.2.- Instalazio guztiek larrialdietarako plan bat izan beharko dute, sutea gertatuz gero eraikinetik nola atera jakiteko.

3.3.- Baso inguruetan kokatutako instalazioek segurtasun-esparru bat izan beharko dute, bat ere arbustu eta landaretzarik gabea, eraikitako eremua eta basoa ongi bereizteko.

4. atala. - Edateko uraren hornikuntza.

4.1.- Instalazioetako iturrietatik edateko ura jori isuriko da beti.

4.2.- Ur-gandelik edo depositurik baldin badago, horrek ezingo du egon eraikina erabiltzen duten pertsonen irispidean. Ongi estalia eta babestua egon beharko du, ezerk kutsa ez dezan.

4.3.- Ura udalaren hornikuntza saretik iristen ez bada, klorazioa automatikoki egiteko aparatu bat egongo da instalazioan, uraren baldintza bakteriologikoak bermatzeko. Aparatu horrek egoera ezin hobean egon beharko du denbora guztian, behar den bezala funtzionatzeko.

4.4.- Instalazioek edateko urari dagokionez indarrean dagoen legedia bete beharko dute.

5. atala. - Ur zikinaren bideraketa eta zabor-bilketa.

5.1.- Zaborra botatzeari eta ur-zikina kanporatzeari dagokionez, Euskal Autonomi Elkarteke natura zaintzeari buruzko Legeak ezartzen dituen baldintza eta debekuak hartu beharko dira kontuan, bai eta foru aldundiek mendiei eta ingurugiroari buruz emandako arauak ezartzen dituztenak ere. Instalazioek, bestalde, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen osasun baldintzak betetzen dituen sistema eduki beharko dute.

5.2.- Zaborra eta bestelako hondakinak gaika edo taldeka biltzea gomendatzen da.

6. atala. - Logelak.

6.1.- Logelek kanpoko aldetik zuzenean datorren aireztapena izango dute, airea behar bezala berritu dadin.

6.2.- Logelak ezingo dira inoiz lur azpiko zoruetan kokatu, eta kanpoko argia beharko dute izan.

6.3.- Erabiltzaileek lo egiteko espazio indibiduala izango dute, dela ohea edo dela literako plaza bat. Lotarako leku horiek koltxoia, koltxoi-funda eta manta izan beharko dute, gutxienez, eta egoera higieniko egokian beharko dute izan. Bestalde, armairu bat edo takila moduko armairutxo bat ere izango dute, beren gauzak gordetzeko.

6.4.- Erabiltzaile bakoitzak izan behar duen espazioa 4 metro kubikotik gorakoa beharko du izan eta, ohe edo litera bakoitzeko, gutxienez, 3'75 metro karratuko espazioa beteko da zoruan.

6.5.- Ohe edo litera bakoitzak gutxienez korridore bat izango du alboan, logela osoaren banaketa eta ohe kopurua kontuan hartuta.

3.2.- Toda instalación deberá contar con un plan de emergencia contra incendios y de evacuación del edificio.

3.3.- Las instalaciones situadas en zonas forestales deberán disponer de una franja de seguridad libre de arbustos y vegetación que separe la zona edificada de la zona forestal.

Artículo 4. - Suministro de agua potable.

4.1.- Toda instalación deberá disponer de un suministro abundante y continuo de agua potable.

4.2.- En el supuesto de que se disponga de depósito, éste deberá estar emplazado en un lugar no accesible para las personas usuarias del edificio. En cualquier caso, quedará convenientemente cubierto y protegido de toda posible contaminación.

4.3.- A fin de garantizar las condiciones bacteriológicas del agua cuando el suministro no provenga de la red municipal, las instalaciones dispondrán de un aparato de cloración automática que deberá encontrarse en todo momento en condiciones óptimas de funcionamiento.

4.4.- Toda instalación deberá cumplir la normativa vigente relativa al suministro de agua potable.

Artículo 5. - Evacuación de aguas residuales y recogida de basuras.

5.1.- La eliminación de desperdicios y de aguas residuales se efectuará conforme a las limitaciones y prohibiciones que al respecto dispone, en su caso, la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, así como las normativas forales sobre montes y sobre medio ambiente, debiendo disponer de un sistema que reúna además las condiciones sanitarias exigidas por la normativa vigente.

5.2.- Se recomienda la recogida selectiva de basura y otros residuos.

Artículo 6. - Dormitorios.

6.1.- Los dormitorios dispondrán de ventilación directa al exterior que garantice una adecuada renovación del aire.

6.2.- Los dormitorios no podrán situarse nunca en subterráneos y deberán disponer de luz natural.

6.3.- Cada persona usuaria dispondrá de un espacio individual para dormir, sea cama o plaza de litera, dotado, como mínimo, de colchón, funda de colchón y manta, que deberán encontrarse en perfectas condiciones higiénicas. Dispondrá también de un armario, taquilla o similar para depositar sus efectos personales.

6.4.- El cubillaje por persona usuaria no será inferior a 4 metros cúbicos y el mínimo de espacio de suelo por cama o litera será de 3'75 metros cuadrados.

6.5.- Toda cama o litera habrá de tener, al menos, un pasillo lateral, cuya disposición estará marcada por la distribución y capacidad total del dormitorio.

6.6.- Literak baldin badaude, behar diren neurriak hartuko dira goiko somieretatik erori eta ezbeharrik ez gertatzeko.

7. atala. - Jantokia eta sukaldea.

7.1.- Jantokia eta sukaldea beren zeregina era egokian betetzeko behar diren altzari, mahai-tresneria eta bestelako tresneriaz horniturik beharko dute izan, kontuan hartuta zenbat erabiltzaile egon daitezkeen gehiezin aldi berean ostataturik.

7.2.- Janari zerbitzua ematen ez duten instalazioek hozkailua eta janari-gordailu egokia izango dute, elikagaiak gordetzeko.

7.3.- Janari zerbitzua ematen duten instalazioek jantoki kolektiboen arau tekniko-osasunekoie buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute, bai eta gai horren inguruan dauden bestelako arauak ere.

8. atala. - Higiene zerbitzuak.

8.1.- Instalazio guztiek higiene-zerbitzutarako guneak izango dituzte, nahikoak mutilentzat eta nahikoak nesKentzat, garbiak eta osasunerako egoera onean.

8.2.- Higiene zerbitzutarako guneek aireztapen nahikoa izan beharko dute.

8.3.- Komunetako elementu guztietatik ur korrontea isuriko da.

8.4.- Zerbitzu higienikoen artean, gutxienez, honako hauek egongo dira:

- a) Komun-ontzi bat hamabi pertsona edo frakzioko.
- b) Konketa bat hamar pertsona edo frakzioko.
- c) Dutxa bat hamabi pertsona edo frakzioko. Oinutzik ibiltzeko lekua ez da irristakorra izango eta erraz desinfekta daitekeena izango da.
- d) Gune sanitario bakoitzeko konketa eta dutxa bat, gutxienez, ur berokoak izan beharko dute.

9. atala. - Botikina.

9.1.- Instalazio guztietan lehen-laguntzarako botikin bat egongo da. Botikin horretan istripurik ohikoenen aurre egiteko moduko material aski egongo da eta hartu beharreko neurriak hartuko dira haurrek sendagarrietara iristeko modurik izan ez dezaten.

9.2.- Instalazioen erabiltzaileak gaixotzen edo kutsatzen badira, instalazioaren arduradunek horren berri eman beharko diete osasun arloko agintariei.

9.3.- 75 lagun baino gehiagorentzako lekua duten instalazioetan erizaindegi moduan ibiltzeko gela berezi bat ere egongo da. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari txostena eskatu beharko zaio, gela hori alde aurreko baimena behar duen osasun-zerbitzu moduan erabil daitekeen ala ez adieraz dezan.

10. atala. - Ekintzetarako gelak.

Instalazioetan gela bat edo gehiago egongo da ekin-tzak egiteko, kontutan hartuta instalazioaren erabiltzaile kopuru gehienezkoa.

6.6.- En caso de disponer de literas se tomarán las medidas oportunas para evitar accidentes por caídas desde los somieres superiores.

Artículo 7. - Comedor y cocina.

7.1.- El comedor y la cocina deberán estar equipados con el mobiliario, el utillaje y la cubertería adecuados para su función y suficientes para la capacidad máxima de personas usuarias.

7.2.- Las instalaciones que no ofrezcan servicio de alimentación estarán dotadas de un espacio frigorífico y de despensa adecuados para almacenaje de alimentos y provisiones.

7.3.- Las instalaciones que ofrezcan servicio de alimentación se atenderán a la normativa vigente sobre reglamentación técnico-sanitaria de comedores colectivos y demás normativa sectorial al respecto.

Artículo 8. - Servicios higiénicos.

8.1.- Toda instalación dispondrá de bloques de servicios higiénicos, en número adecuado para hombres y mujeres, limpios y en buenas condiciones sanitarias.

8.2.- Los bloques de servicios higiénicos dispondrán de ventilación suficiente.

8.3.- Todos los elementos sanitarios dispondrán de agua corriente.

8.4.- Los servicios higiénicos deberán disponer, como mínimo, de los elementos siguientes:

- a) Un evacuatorio por cada doce personas o fracción.
- b) Un lavabo por cada diez personas o fracción.
- c) Una ducha por cada doce personas o fracción. La zona de pies descalzos deberá tener un suelo no resbaladizo y fácilmente desinfectable.
- d) Agua caliente en uno de los lavabos y en una de las duchas de cada uno de los núcleos sanitarios, como mínimo.

Artículo 9. - Botiquín.

9.1.- Toda instalación dispondrá de botiquín de primeros auxilios, que contará con los materiales suficientes para poder atender los casos más corrientes. Se tomarán las medidas necesarias para impedir el acceso de los niños y niñas a los medicamentos.

9.2.- En el supuesto que se produzcan casos de contagio o enfermedad, se recomienda comunicar dicha situación a las autoridades sanitarias por parte de la persona responsable de la instalación.

9.3.- Aquellas instalaciones que superen las 75 plazas de capacidad dispondrán de una habitación aislada destinada a enfermería, debiendo solicitar al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco informe en razón de si puede considerarse como centro o servicio sanitario que precisa de previa autorización.

Artículo 10. - Salas de actividades.

Toda instalación dispondrá de una o varias salas para la realización de actividades adecuadas a la capacidad máxima de personas usuarias de la instalación.

11. atala.– Bestelako eremu eta guneak.

11.1.– Instalazioetan leku egoki bat egon beharko du kanpoko aldean, estalperik gabe, erabiltzaileek atari zabalen jolasteko, gau-jaiak egiteko eta kirola egiteko aukera izan dezaten, besteak beste. Kontuan hartu beharko dira Euskal Autonomi Elkarteke natura zaintzeari buruzko Legean ezarritako baldintza eta debekuak, bai eta foru aldundiek mendiei eta ingurugiroari buruz emandako arauetan eta haurren babesari eta aisialdirako eremuei buruzko arauetan ezarritakoak ere.

11.2.– Instalazioetan igerilekurik baldin badago, indarrean dagoen legediak igerileku publikoentzako eskatzen dituen betebeharrak konplitu beharko ditu.

12. atala.– Oztopo arkitektonikoak kentzea.

Eraikin berrietan oztopo arkitektonikoak kentzeari buruzko araudian eta aplikatzen daitezkeen gainerako araudietan ezarritako betebeharrak teknikoak beteko dira.

13. atala.– Barruko funtzionamendurako arauak.

13.1.– Instalazio guztiek barruko erregelamendua izango dute erabiltzaileen eskura. Bertan instalazioak eskaintzen dituen zerbitzuak eta indarrean dauden prezioak agertuko dira.

13.2.– Erabiltzaileei instalazioetan eskaintzen zaizkien zerbitzu guztien prezioak biltzen dituen zerrenda emango zaie eta larrialdiren bat gertatuz gero eraikinetik nola atera azaltzeko plano bat ere bai.

13.3.– Gertatzen diren istripuen inguruko erregistro bat egitea gomendatzen da, horiek sortarazi dituzten arazoiei konponbidea jartze aldera.

14. atala.– Instalazioaren ikuskapena eta garbitasuna.

Egonaldi bakoitzaren hasieran eta bukaeran instalazioa ikuskatu eta garbitzen dela bermatu beharko da, erabiltzaile berriak sartzen direnean egoera ezin hobean dagoela ziurtatzeko.

15. atala.– Erabiltzaileen eskubideak.

Instalazioen erabiltzaileek honako eskubide hauek dituzte:

a) Instalazioak erabiltzea, indarrean dagoen araudia-
ren arabera eta barruko erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

b) Kontratazioa egin aurretik prezio guztien berri izatea.

c) Egindako ordainketa guztien ordain-agiria jasotzea. Ordain-agirietan honako hau agertuko da: instalazioaren izena, inprimatua edo zigiluz markatua, eta kobratu beharreko kontzeptu guzti-guztiak banakaturik.

16. atala.– Erabiltzaileen betebeharrak.

Erabiltzaileek honako betebeharrak dituzte:

a) Instalazioaren barruko erregelamendua betetzea.

b) Guztion arteko elkarbizitzarako arauak eta higie-
nezkoak errespetatzea.

Artículo 11.– Otros espacios y zonas.

11.1.– Toda instalación deberá poner a disposición de las personas usuarias un espacio próximo de terreno al aire libre, convenientemente delimitado, para la realización de actividades diversas como juegos, veladas o deportes, conforme a las limitaciones o prohibiciones que al respecto dispone, en su caso, la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, así como las normativas forales sobre montes y sobre medio ambiente, además de la norma sobre medidas de protección infantil y zonas de recreo.

11.2.– Si la instalación dispone de piscina, ésta deberá reunir las condiciones exigidas en la normativa vigente para las piscinas públicas.

Artículo 12.– Supresión de barreras arquitectónicas.

Tratándose de instalaciones de nueva construcción, se cumplirán las prescripciones técnicas contenidas en la normativa para la supresión de barreras arquitectónicas y demás normas aplicables.

Artículo 13.– Reglamento de Régimen Interno.

13.1.– Toda instalación contará con un Reglamento Interno a disposición de las personas usuarias, donde constarán los servicios ofertados y los precios vigentes.

13.2.– Se facilitará a las personas usuarias una lista conteniendo los precios de todos los servicios ofertados y un plano de evacuación de la instalación.

13.3.– Se recomienda la llevanza de un registro de accidentes, al objeto de facilitar la subsanación de sus causas.

Artículo 14.– Revisión y limpieza de la instalación.

Deberá garantizarse la revisión y limpieza al inicio y final de cada estancia con el fin de que la instalación se encuentre en perfectas condiciones a la incorporación de cada persona usuaria.

Artículo 15.– Derechos de las personas usuarias.

Se reconocen a las personas usuarias de las instalaciones los siguientes derechos:

a) Hacer uso de la instalación de acuerdo con la normativa vigente y con lo establecido en el Reglamento Interno.

b) Conocer los precios de los diferentes servicios antes de la contratación.

c) Recibir factura o justificante de cada pago efectuado. En cada justificante constará el nombre de la instalación, impreso o sellado, y todos y cada uno de los conceptos desglosados a cobrar.

Artículo 16.– Obligaciones de las personas usuarias.

Las personas usuarias de las instalaciones están sujetas a las siguientes obligaciones:

a) Cumplir el Reglamento Interno de la instalación.

b) Observar las reglas de buena convivencia social e higiénica.

c) Instalazioa etengabe garbi edukitzea, instalazioak berak ezarritako baldintzen arabera.

d) Ustiapenen titularrei edo instalazioaren kudeaketaz arduratzen direnei bertan egindako edozein narriaduraren berri ematea.

17. atala.– Instalazioaren aldi baterako onarpena.

Normalean beste helburu batzutarako erabili ohi den eraikina aldi batez aterpetxe gisa erabiltzeko egokitu nahi baldin bada, aldi baterako onarpena eskatu beharko da eta, horretarako, urriaren 18ko 406/1994 Dekretuaren 7. atalean eskatzen den dokumentazioa bidali, zerbitzua edo jarduera hasi baino bi hilabete lehenago.

18. atala.– Erregistro bateratua.

Dagokion foru aldundiaren organo eskumendunaren eskutik errekonozimendu ofiziala jasotzen duten instalazioak Euskadi osoko instalakuntzak biltzen dituen erregistro bateratuan sartuko ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Hori egin ahal izateko foru aldundietako organo aginpidedunek instalazio bakoitzaren onarpen erabakia bidaliko diote Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta, horrekin batera, beste xehetasun hauek ere bai: eskatzailearen datuak, instalazioaren izena, kokalekua eta ezaugarri nagusienak eta instalazioak eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematen duen zerrenda. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak foru aldundietako organo eskumendunei emandako eredu-urrietan egin beharko dute.

19. atala.– Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalazio eta Aterpetxe Sarearen bereizgarria.

19.1.– Onartu eta erregistro bateratuan sartutako instalazioek osatuko dute Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalazio eta Aterpetxe Sarea. Sare horren euskarazko izen laburtua hau da: «Euskadiko Aterpetxe Sarea (E.A.S.)».

19.2.– «Euskadiko Aterpetxe Sarea»n sartzen diren instalazio guztiek eraikinaren kanpoko aldean, ongi ikusten den leku batean, bereizgarri berdina izango dute, hau da, aterpetxe sarea identifikatzeko logotipoa eta «Albergue-Aterpetxea» hitzak (Euskal Autonomi Elkarteko bi hizkuntza ofizialetan) eta, horrez gain, instalazioaren izena. Sarearen bereizgarri ofiziala errekonozimendua egiten duen organoak emango dio instalazioaren jabeari, dagokion lekuan jar dezan. Bereizgarri ofizialaren diseinua Agindu honen eranskinean agertzen dena izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honen bidez ezarritako baldintzak betetzeak ez du esan nahi araudi sektorialen bidez ezartzen diren beste gainerako betekizunak zorrozki bete beharko ez direnik.

c) Mantener permanentemente la instalación en perfectas condiciones de limpieza, de acuerdo con las condiciones establecidas por la instalación.

d) Comunicar a las personas titulares de la explotación o a las personas responsables de la gestión de la instalación cualquier desperfecto causado en la misma.

Artículo 17.– Reconocimiento temporal de instalaciones.

En aquellos casos en que se pretenda habilitar temporalmente un edificio que habitualmente esté destinado a otros fines, se deberá solicitar el correspondiente reconocimiento temporal, adjuntando la documentación requerida en el artículo 7 del Decreto 406/1994, de 18 de octubre, dos meses antes del inicio del servicio o actividad.

Artículo 18.– Registro unificado.

El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco inscribirá en el Registro unificado para todo el ámbito de Euskadi las instalaciones que hayan obtenido el reconocimiento oficial por parte del órgano competente de la Diputación Foral que corresponda, para lo cual dicho órgano remitirá al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco la resolución de reconocimiento de cada instalación junto a los datos identificativos del solicitante y la denominación, ubicación y características fundamentales de la instalación, incluyendo los servicios que presta, según el modelo que será facilitado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco a los órganos competentes de las Diputaciones Forales.

Artículo 19.– Distintivo de la Red de Albergues e Instalaciones para grupos infantiles y juveniles de Euskadi / Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalakuntza eta Aterpetxe Sarea.

19.1.– Las instalaciones reconocidas e inscritas en el Registro unificado integrarán la Red de Albergues e Instalaciones para grupos infantiles y juveniles de Euskadi / Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalakuntza eta Aterpetxe Sarea, cuya denominación abreviada es «Red de Albergues de Euskadi / Euskadiko Aterpetxe Sarea (R.A.E. / E.A.S.)».

19.2.– Las instalaciones que se integren en la «Red de Albergues de Euskadi / Euskadiko Aterpetxe Sarea» ostentarán en un lugar visible del exterior del edificio el distintivo único compuesto por el logotipo identificativo de la Red y la leyenda en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma «Albergue-Aterpetxea», así como la denominación de la instalación. El distintivo oficial de la Red, cuyo diseño es el que se determina en el Anexo a la presente Orden, será concedido por el Órgano otorgante del reconocimiento a la persona titular de la instalación para que proceda a su oportuna colocación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El cumplimiento de los requisitos exigidos en la presente Orden no exonera del cumplimiento estricto de cuantos sean de preceptivo cumplimiento en la correspondiente normativa sectorial.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretuan ezarritakoaren bidez eta, beraz, Agindu hau indarrean jarri baino lehen, ofizialki onartutako instalazioen artetik Agindu honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzen ez dituztenei, betetzen ez dituzten baldintza horiek lehenbailehen betetzeko eskatuko die onarpen erabakia hartu zuen organoak. Betekizun horiek konplitzeko urtebeteko epea izango dute, hori egiteko eskatzen zaien egunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko azaroaren 12a.

Kultura sailburua,
M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Aquellas instalaciones que hubieran sido reconocidas oficialmente a tenor de lo dispuesto en el Decreto 406/1994, de 18 de octubre, con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Orden y que no se atengan en su totalidad a lo dispuesto en la presente Orden, serán requeridas por el Órgano que dictó la correspondiente resolución de reconocimiento para que subsanen las deficiencias en el menor plazo de tiempo posible, no superior, en cualquier caso, a un año desde la fecha de recepción del requerimiento.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 1997.

La Consejera de Cultura,
M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

ERANSKINA / ANEXO

Bereizgarria, Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalazio eta Aterpetxe Sarearena. Euskadiko Aterpetxe Sarea (E.A.S.)»:

Distintivo de la Red de Albergues e Instalaciones para grupos infantiles y juveniles de Euskadi / Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalakuntza eta Aterpetxe Sarea. «Red de Albergues de Euskadi / Euskadiko Aterpetxe Sarea (R.A.E. / E.A.S.)»:



KOLORE KORPORATIBOA / COLOR CORPORATIVO

	PANTONE Blue 672 CV	cyan 100 % magenta 29 % hota 0 % beltza 0 %		cyan 100 % magenta 29 % arallo 0 % negra 0 %
	PANTONE Red 185 CV	cyan 0 % magenta 100 % hota 100 % beltza 0 %		cyan 0 % magenta 100 % arallo 100 % negra 0 %
	PANTONE Green 349 CV	cyan 40 % magenta 0 % hota 100 % beltza 60 %		cyan 40 % magenta 0 % arallo 100 % negra 60 %
	PANTONE Process Yellow	cyan 0 % magenta 0 % hota 100 % beltza 0 %		cyan 0 % magenta 0 % arallo 100 % negra 0 %